



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Komunikazio sexistaren inguruko kexak jasotzeko inprimakia

Berdez dauden eremuak nahitaezkoak dira, eta urdinak, gomendagarriak, BEGIRA - publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen erantzun pertsonalizatua jaso ahal izateko.

1

Deskriba ezazu berria, erreportajea, iritzia:

Noiz aurkitu duzu?:

Komunikabidea:

Gaia (berriarena, erreportajearena, iritziarena):

IRUDIA ERANTSI
(jpg, png, tif):

LINKA ERANTSI:

.....
.....
.....

2

Izen-abizenak:

Telefonoa: eta/edo E-mail-a:

- Gizonezkoa Emakumezkoa Beste sexu-identitate bat
- <18 urte 18-30 urte 31-40 urte 41-50 urte >50 urte
- Ikasketarik gabe Lehen mailakoak Erdi mailakoak Goi mailakoak

3

Zergatik uste duzu edukia sexista dela?
.....
.....

Nahi baduzu, mezua test honen bidez azter dezakegu:

Emakumeen rola eta ikusgaitasuna

- Emakumeak eta gizonak funtzio eta zeregin desberdinetan eta estereotipuetan dihardutela erakusten ditu.
- Kontsulta egin zaien aditu gehienak gizonak dira.
- Gizonak gehiago agertzen dira protagonista gisa, informazioa ematen edo sinatzen, irudietan, ...
- Emakumeak eta gizonak etxeko lanekin eta zaintza-lanekin lotzen dituenean, desberdin eta estereotipoetan oinarrituta aurkezten ditu batzuk eta besteak.
- Emakumeak gizonak baino independentzia, ezagutza, prestigio, diru... gutxiago dutela erakusten ditu.

- Emakumeei izen ona galarazten die lan arloan, profesionalean, gaitasunei dagokienez...
- Emakumeak gehiago agertzen dira biktima gisa, zailtasunei aurre egiten dieten agente gisa baino.
- Gizonei galdetuko ez liekeena galdetzen die emakumeei.

Oharrak:

.....

Emakumeen gorputza eta irudia

- Erreferentzia sexualak edo erotikoak daude (testuan, off-eko ahotsean, irudian), informazioarekin zerikusirik ez dutenak.
- Gorputza (edo haren zatiak) dekorazio-objektu ordezkagarri gisa erakusten du, berriari laguntzeko objektu gisa.
- Estetikaren aldetik epaitzen ditu informazioan ageri diren emakumeak.
- Perfektutasunean-gaztetasunean-argaltasunean oinarritutako edertasun-eredu bat sustatzen du, eta hori arrakastarekin lotzen.
- Behar ez diren eta/edo sexistak diren irudiak edo xehetasunak erabiltzen ditu.

Oharrak:

.....

Hizkuntzaren erabilera sexista

- Emakumeenganako mespretxuzko hizkera erabiltzen du.
- Maskulinoa (edo femeninoa) erabiltzen du –itxuraz, behintzat– gizonak eta emakumeak adierazteko.
- Emakumeentzat erabiltzen dituen kalifikatzaileak desberdinak dira, gizonentzat erabiliko ez liratekeenak.
- Emakumeak izendatzerakoan, hurbilekoago agertzen da gizonak izendatzerakoan baino.

Oharrak:

.....

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa

(Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko berrien kasuan soilik bete)

- Ezkutuan uzten ditu emakumeen aurkako indarkeriaren kausa sozialak.
- Biktimen intimitatea eta duintasuna erasotzen du, baita haien ingurukoena ere (batik bat, seme-alaba adingabeena).
- Beharrezkoak ez diren iritziak, xehetasunak edo irudiak jasotzen ditu, baita morbosoak ere.
- Emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen duten esapideak edo irudiak erakusten ditu.

Oharrak:

.....

Berdintasuna, dibertsitatea eta askotariko diskriminazioak

- Ezkutuan uzten du emakumeentzat edo gizonentzat desberdina dela inpaktua (onurak edo kalteak).
- Ezkutatu edo gutxietsi egiten ditu sexualitate desberdina dutenak, jatorri, erlijio, maila ekonomiko, gaitasun funtzional... desberdinekoak.

Oharrak:

.....

Igorleak baimena ematen du emandako datu pertsonalak informatikoki tratatzeko –estatistika helburuetarako– eta kexak egindako bideari buruzko informazioa emateko erabiltzeko. Datuak konfidentziasun osoz tratatuko dira: beste pertsona batzuek ezingo dituzte kontsultatu, eta, zertarako eskatu diren, horretarako baino ez dira erabiliko. Halaber, ematen diren datu pertsonalak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu daitezke, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, helbide honetan: emakunde.begira@euskadi.eus

Garbitu

Inprimatu

Bidali